



**ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ESTUDIOS EMPRESARIALES  
DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN**



# **INDUSTRIA-MARKETINEKO OINARRIZKO TERMINOLOGIAREN AZTERKETA**

**Egilea: UNAI ETXARRI LASA**

**Tutoreak: JOSE MARIA ARRIOLA**

**JOSE JUAN BERISTAIN**

**2018/2019 IKASTURTEA**

## AURKIBIDEA

<b>LABURPENA</b> .....	2
HELBURUAK: .....	2
JUSTIFIKAZIOA: .....	2
METODOLOGIA: .....	2
EMAITZAK: .....	5
ONDORIOAK: .....	5
 <b>AURREKARIAK</b> .....	 6
 <b>HELBURUAK</b> .....	 8
1. <i>Termino-zerrenda eleaniztun bat osatzea eta TZOSen jartzea:</i> .....	8
2. <i>Testuen hizkuntzaren zuzentasuna gainbegiratzea:</i> .....	8
3. <i>Termino-zerrendaren zenbait iturrirekiko erkaketa:</i> .....	9
4. <i>Terminoak etiketa bidez sailkatzea:</i> .....	9
 <b>METODOLOGIA</b> .....	 10
1. <i>Termino-zerrendaren osaketa</i> .....	10
2. <i>Termino-zerrendaren azterketa</i> .....	11
 <b>EMAITZA</b> .....	 13
1. <i>Osatutako termino zerrendaren ezaugarrien emaitza</i> .....	13
2. <i>TZOS datu-basearekiko erkaketaren emaitza</i> .....	15
3. <i>Euskalterm datu-basearekiko erkaketaren emaitza</i> .....	16
4. <i>Termino-zerrendaren sailkapenaren emaitza</i> .....	19
 <b>EZTABAIDA</b> .....	 21
 <b>ONDORIOAK</b> .....	 23
 <b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	 25
 <i>TERMINO-ZERRENDA ALFABETIKOKI</i> .....	 26
 <i>TERMINO-ZERRENDA ETIKETAREN ARABERA</i> .....	 35

# **LABURPENA**

## **HELBURUAK:**

UPV/EHUko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradu amaierako lan honen helburua *Sektore espezifikoetako Marketina*<sup>1</sup> liburuko bi kapituluetatik eratorritako Industria-marketinaren barnean kokatzen den terminologia erreala biltzen duen hizkuntza ezberdinetako zerrenda bat egitea da.

Honen bitartez, marketin arloko euskarazko terminologia akademikoaren deskripzioan eta finkapenean ekarpen bat egin nahi da, euskarazko terminoen jabetza eta trebatzea landuz, UPV/EHUko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan irakasten den marketin irakasgaiari erabiltzen den terminologia errealetik abiatuta. Bereziki, kontuan izanik Euskal Autonomia Erkidegoan industriak duen garrantzia, eta alor honetan dagoen euskarazko terminologiaren gabezia esanguratsua, industria marketina izango dugu aztergai.

## **JUSTIFIKAZIOA:**

Aztergai dugun lan hau, euskararen normalizazio ezagatiko zenbait arazo gainditzeko sortu zen Terminologia Sareak Ehunduz (TSE)<sup>2</sup> programaren markoan kokatzen da: irakasleen arteko sareak sortzea eta dinamizatzea, euskarazko terminologia sendotu eta partekatzea eta erregistro akademikoen normalizazioa.

## **METODOLOGIA:**

Garaterm lan-ingurunean<sup>3</sup>, Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programarako garatutako metodologia izan da gure jarrai-gida.

Lehenengo fasean, industria-marketineko termino-zerrenda osatzeari ekin diogu. Horretarako, nire Gradu Amaierako Lana burutzeko laguntzaile izan ditudan tutoreek "*Sektore espezifikoetako marketina, EHUko argitalpen zerbitzua*" liburuan jasotzen diren bi kapitulu Garatermera igo dituzte, *Merkatuak eta industriako bezeroen*

---

<sup>1</sup> Aguirre Garcia, M.S. (Koordinatzailea) (2004): *Sektore espezifikoetako marketina*, EHU-UPV; 1- 96 or.

<sup>2</sup> [http://garaterm.ehu.es/garaterm\\_ataria/tse-programa/](http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/tse-programa/)

<sup>3</sup> [http://garaterm.ehu.es/garaterm\\_ataria/](http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/)

*jokabidea eta Industria-merkatuetako marketinaren ikerketa eta estrategia* izeneko kapituluak, zehazki.

Hurrengo urratsean, Garaterm lan-ingurune berean barneratuta dagoen Erauzterm termino erauzleak termino-hautagai zerrenda luze bat sortu digu. Termino zerrendako hautagaiak eskuz baliotzea izan da ondorengo urratsa. Behin hau amaituta, aztergai erabili dugun industria-marketineko behin betiko euskarazko termino errealen zerrenda lortu dugu, lorturiko euskarazko termino hauetariko batzuen aldakiak erantsiz eta gaztelania eta ingelesezko ordainak esleituz.

Industria-marketineko termino errealen behin betiko zerrendari erabilgarritasun praktiko bat eman ahal izateko eta denentzat eskuragarri egoteko, etorkizuneko ondorengo lan-pausua, Terminologia Zerbitzurako Online Sistemaren (TZOS)<sup>4</sup> kontsultagai jartzea izango litzateke.

Bigarren faseari dagokionez, aurreko urratsean zehazturiko industria-marketineko termino errealen zerrendaren azterketa gauzatzean oinarritu gara. Ondoren 1.3 atalean sakonago aztertzen dugun, TZOS eta Euskalterm<sup>5</sup> datu-base terminologikoetan jasota dagoen terminologiaren eta guk balioztatuko termino zerrendaren arteko erkaketa burutu da. Azkenik, terminoen zehaztasun maila areagotze aldera, termino-zerrenda guztia hiru etiketa ezberdinetan sailkatu du.


---

<sup>4</sup> <http://tzos.ehu.es/?setuilang=eu>



<sup>5</sup> <http://www.euskara.euskadi.eus/r59-euskalte/eu/q91EusTermWar/kontsultaJSP/q91aAction.do>

1.Grafikoa: Proiektuaren urrats nagusiak.

**1.FASEA**



**2.FASEA**



**EMAITZAK:**

Lortu dugun emaitzaren arabera, gure termino-zerrendako terminoen konplexutasunari dagokionez, gehienak bi osagaikoak (% 52,33) eta hiru osagaikoak (% 29,53) dira, non honek adierazten duen gure termino-zerrendako terminoen gehiengoa konplexutasun ertain-altukoak direla. Bestalde, gure amaierako termino-zerrendan bildu ditugun terminoetatik Euskalterm datu-banku terminologikoan gehienez ere, % 18,13 daude jasota eta TZOSen % 5,70, zerrendako terminoen gainerako guztiak lan honi esker jaso dira.

Amaitzeko, gure termino-zerrendaren azterketa sakonagoa lortzeko asmoz, terminoak hiru etiketa ezberdinen bidez sailkatu dira. Alde batetik, industria-marketinaren esparruan maila-orokorrekoak adierazi ditugu. Bestetik, industria-merkatuen baitan zehatzagoak direnak txertatu ditugu, eta azkenik, industria-marketinako estrategia gisa biltzen direnak.

**ONDORIOAK:**

Egindako lanaren amaieran lorturiko termino-zerrenda eleaniztun honek, irakasle euskaldunen arteko komunikazio-sareak sortzeko eta hiztegiak nahiz corpusak egiten dituztenentzat, alor honetako terminologia aintzat hartzeko aukera eskaintzen du. Honez gain, jorrraturiko lanaren ekarpena zabaltzeko, TZOSen kontsultagai jartzeaz gain, esparru honetako ikerketa edo lanen bat gauzatu behar duen interesdun ororen artean, ikasle nahiz marketinarekin zerikusia duten beste irakasgaiko kideen artean zabaltzeko, erabilgarria izan dadin terminologian egon daitezkeen ezberdintasunak eta xehetasunak aztertzeko. Etorkizunera begira, interesgarria izango litzateke alor honetan lanak burutzen dituztenek ere bide berdina jarraitzea, terminologiaren aberasgarritasuna areagotzeko eta egungo hutsune terminologikoen inguruko arazoa gainditzen laguntzeko.

## AURREKARIAK

Lan hau egin ahal izateko behar izan dugun tresna aukeratzeko orduan 2008an Garaterm<sup>6</sup> egitasmoari esker abiatutako TSE programa, hau da, Terminologia Sareak Ehunduz programa erabiltzea erabaki dugu. Programa hau EHUko Euskararen Errektoreordetzaren laguntzarekin jarri zen martxan eta euskararen normalizazioan EHUn lantzen diren espezialitate alorretako terminologiaren garapenerako eta finkapenerako erronka bilakatu da geroztik.

Garaterm proiektuarekin martxan ari zirenean euskarazko erregistro espezializatuen Garapenak ezinbesteko laguntza beharra zuela antzeman zuten eta bi lerro nagusiren inguruan zentratu ziren: alde batetik, arlo akademikoaren inguruan euskarazko erregistro espezializatu egoki bat bermatzeko dauden beharren inguruan, eta beste alde batetik, euskararen estandarizazio eta normalizazio-prozesuan.

Horrela, EHUn egunerokotasuneko jardueretan euskaraz lantzen diren espezialitate alorretako erregistro espezializatuen garapen prozesuan zenbait arazorekin aurkitzen gabela ikusi zuten. Batetik, euskararen normalizazio ezetik datozen arazoak eta terminologia lanerako erabiltzen den metodologiatik etor litezkeenekin topatzen garelako eta bestetik, irakasle batzuen hizkuntza-gaitasun orokorra dela eta, hauek sortutako testuen kalitatea bermatzeko arazoak daude.

Bi arazo hauetan zentratuz, hainbat zailtasun detektatu dituzte aztertutako testu akademikoetan TSE programan euskara normalizatu gabe egotearen ondorio gisa: batetik, arau batzuk ezarri gabe daudenez, estandarizazio prozesua amaitu gabe dago, eta euskarazko terminologia eta fraseologian adituak ez diren irakasleei kode estandar bat ez egoteak zalantzak sortzen dizkie. Zenbait irakaslek hutsuneak izan ditzakete hizkuntza-gaitasun orokorretan. Izan ere, euskal gizarteak euskaraz ikasteko azaldu duen eskariari oso azkar erantzun behar izan diote erakundeek eta, horren ondorioz, askotariko hiztun motak aurki ditzakegu unibertsitateko irakasleen artean ere. Bestetik, adituen arteko komunikazio-sareen gabezia dela eta, ez da espezialitate alorretako erregistroak garatzeko eta finkatzeko lan gehiegirik gauzatu eta ondorioz, terminologia anitz falta da alor askotan. Izan ere, ikasle eta irakasleen arteko komunikazio-sare arinak izan arren, ez da horrelakorik aurkitzen irakasleen artean.

Aditu-irakasleak dira eragilerik egokienak zeregin hau aurrera eramateko. Lan honekin beraz, beste hainbat helbururen artean, garrantzi handikoa da irakasleen arteko sareak sortzea eta dinamizatzea, horrela euskarazko terminologia finkatzen laguntzeko eta testuen kalitate linguistikoa hobetzen laguntzeko eskura izango ditugu baliabide eta estrategia ezberdinak.

---

<sup>6</sup> Garaterm

[http://garaterm.ehu.es/garaterm\\_ataria/en](http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/en)

Azkenik, terminologia lanerako oinarri teoriko-metodologiko egokiak erabili behar dira. TSE programa terminologia lanerako interesgunea da aztertzea adituek erabiltzen duten terminologia errealia zer-nolakoa den, nola sortzen den eta nola aldatzen den. Hau dela eta, esparru honetan ikertzeko beharrezkoa da adituek erabiltzen dituzten testuak ondo antolatutako corpus batean jasotzea, eta horretan da Garaterm corpora<sup>7</sup>. TSE programarekin batera, ikerketa, garapena eta irakaskuntza uztartzen dituen lan-ingurunea da, zeinari esker, erregistro akademikoak iker daitezkeen eta erregistro akademikoen garapenean diharduten adituekin lan egitearen ondorioz, unibertsitate-irakaskuntzan erabiltzen diren dokumentuak jasotzeko metodologia hobetzen joan den.

---

<sup>7</sup> Garaterm corpora TSE programako partaideentzako dago kontsultagai:

[http://garaterm.ehu.es/garaterm\\_ataria/kontsultak/](http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/kontsultak/)



## HELBURUAK

### **1. Termino-zerrenda eleaniztun bat osatzea eta TZOSen jartzea:**

Lanaren xede nagusia, industria-marketineko terminologia erreal biltzen duen terminoen zerrenda eleaniztun bat egitea eta osatzea da. Esparru honetan dagoen euskarazko terminologiaren eskasia ikusirik, Ekonomia Zientziei dagokien esparruan, konkretuago Industria-marketinaren euskarazko terminologia errealaren garapen eta zehaztapenean ekarpen bat egin nahi dugu. Hemendik aurrera, aditu nahiz ikasleek Industria-marketinaren inguruko testuetan edota, industriarekin erlazionaturiko beste edozein irakasgaietan, eskura izango dute gure termino-zerrenda edozein zalantza edo akats konpontzeko.

Beste alde batetik, terminoak ikusgai jarritz, irakasleek beraien arteko sareak sortzea eta dinamizatzea lortzen da, honela beraien baliabide eta jakintza linguistikoak partekatuz, eztabaidan jarritz eta finkatzen joanez.

### **2. Testuen hizkuntzaren zuzentasuna gainbegiratzea:**

*Sektore Espezifikokoetako Marketina*<sup>8</sup> liburuko aipaturiko bi kapituluak Garatermera igo ostean, lan-ingurune berean barneratuta dagoen Erauzterm termino erauzleak termino-hautagai zerrenda luze bat sortu digu. Termino zerrendako hautagaiak eskuz baliotu ditugu, eta hau izan da bai esfortzu eta bai denbora-tarte gehien eskaini behar izan diogun lan-atala, industria-marketinaren egokitzen diren terminoak aukeratzea, alegia.

Gure lanaren ondorioz lortu dugun termino-zerrendan jasotako terminoak linguistikoki zuzenak diren aztertzeari ekin diogu ondoren. Lan honetan, batez ere, zuzenketak marratxoaren erabilerekin erlazionaturikoak izan dira. Ingeleseko kontzeptu gisa adierazten ziren termino batzuekin ere, zalantzak izan ditugu, itzulpena egiteko beharrik zegoen ala ez erabakitzean, alegia. Izan ere, kontzeptu hauetariko asko nazioartekoak dira, eta beste hizkuntzak mailegu gisa ontzat dituztenez, beste hizkuntzetan ere ingelesezko terminoa erabiltzen da. Gainerakoan, adierazi behar dugu, lortu dugun termino-zerrendaren eleaniztasun maila egokia dela.

---

<sup>8</sup> Aguirre Garcia, M.S. (Koordinatzailea) (2004): *Sektore espezifikokoetako marketina*, EHU-UPV; 1- 96 or.

### **3. Termino-zerrendaren zenbait iturrirekiko erkaketa:**

Termino-zerrenda TZOSen eta Euskalterm datu-base terminologikoan lehenago bildutako terminologiarekin alderatuz lan honekin egin den ekarpena balioztatzea lortu dugu, aztertutako testuan erabiltzen den terminologia, kontsulta-baliabide horietan zenbateraino kodifikatua dagoen egiaztatzeko.

Alde batetik, TZOSen bilduta dauden terminoak izango genituzke: azpikontratista, berrikuntza teknologiko, biltegi, kalitate-berme, lehengai, produkzio-sail... eta beste aldetik, Euskalterm datu-base terminologikoan bilduta dauden terminoak: errealitate birtual, eskari eratorri, industria merkatu, industria-sektore, lankidetzak-akordio, nanoteknologia, Push estrategia eta abar.

### **4. Terminoak etiketa bidez sailkatzea:**

Lortu dugun termino-zerrenda osatzen duten terminoak alfabetikoki ordenatu beharrean, industria-marketineko edukiak argi eta zehatz geratzeko, terminoak etiketa ezberdinen bidez sailkatuko ditugu, informazio gehiago eta zehatzagoa lortuz.

2.2 atalean ikusiko dugun moduan, gure termino zerrendako termino guztiak hiru mailatan banatu ditugu. 2. Taulan ikus dezakegun bezala, alde batetik, orokorra, glosarioaren edukia mugatzen laguntzen duten terminoak. Bestetik, industria-merkatuak, hau da, industria-merkatuen ezaugarriak eta industria-bezeroen motibazioak ulertzen laguntzen duten terminoak, eta azkenik, industria-marketineko estrategiak izenez deitu duguna, Industria-marketineko estrategiak definitu eta deskribatzeko beharrezkoak diren terminoak.

## METODOLOGIA

Gradu amaierako lan hau burutzeko, Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programak eskaintzen dizkigun baliabide eta metodologia erabili ditugu.

Lanarekin hasterakoan, bi fase bereizi ditugu: Alde batetik, industria-marketineko termino errealeen zerrenda osatzea, eta, bestetik, termino-zerrenda honen azterketa.

### **1. Termino zerrendaren osaketa**

Hasiera batean, *sektore espezifikoetako marketina* liburuko *Merkatuak eta industriako bezeroen jokabidea* eta *Industria-merkatuetako marketinaren ikerketa eta estrategia* kapituluak Garaterm lan-ingurunera igo dituzte Gradu Amaierako Lan honetako tutoreek.

Euskal Herrian, industriak geografikoki eta bertako ekonomian suposatzen duen pisua eta garrantzia dela eta, industria-marketineko sektorea lantzea erabaki dugu.

Behin tutoreek kapituluak Garatermera igo ostean, Garaterm lan-ingurune berean barneratuta dagoen Erauzterm termino erauzleak, erdiautomatikoki hautagaien proposamen-zerrenda luze bat sortu digu. Termino zerrendako hautagaiak eskuz baliotzea izan da ondorengo urratsa, terminoak modu egokian zehaztuz, eta industria-marketinaren zuzeneko erlaziorik ez duten terminoak baztertuz. Termino guztiak goitik behera egiaztatu eta beharrezko zuzenketak eginda, aztergai erabili dugun industria-marketineko behin betiko euskarazko termino errealeen zerrenda lortu dugu, guztira 193 termino bilduz. Ondoren termino-zerrenda zabal, ulerterraz eta eleaniztuna eratzeko helburuarekin, lorturiko euskarazko termino hauen gaztelania eta ingelesezko ordainak esleitu ditugu. Horrez gain, ahal den heinean euskarazko terminoen sinonimo eta aldaki diskurtsiboak esleitu ditugu, guztira 29 aldaki jasoz.

Aipatu ditugun ordain horiei dagokienez, 1. taula horretan ikus ditzakegu hainbat adibide. Alde batetik, terminoak eta bere aldakiak dauzkagu eta bestetik, ordea, termino horien gaztelaniazko eta ingelesezko itzulpenak. Horien ondorioz, gure lanaren sakontasun maila altuago batera iristea eta, honela, gure betebeharrean informazio gehiago lortzera iritsi gara.

1.Taula: Termino-zerrendaren adibidea, gaztelania eta ingeleko ordainekin

TERMINOA	ALDAKIA	GAZTELANIA	INGELESA
Pull estrategia	tiratze-estrategia/ xurgapenerako estrategia	estrategia Pull	Pull strategy
produkzio-sail	fabrikazio-sail	departamento de producción	production department
industria-eskariaren prezio-sentikortasun	industria-eskariaren prezio-elastikotasun	sensibilidad del precio de la demanda industrial	elasticity of industrial demand price
Industria-azoka	Industria- feria/erakusketa	exposición industrial	industrial exhibition

Azken pauso moduan, gurea den termino-zerrenda hau Terminologia Zerbitzurako Online Sistemari (TZOS) kontsultagai jartzea geratuko litzaiguke, ikusgai egoteko, bai irakasleentzat eta baita adituei eskuragarri jartzeko, eta egindako lana erabilgarria izan dadin.

## 2. Termino-zerrendaren azterketa

Atal honi hasiera emateko, lortutako termino-zerrendaren azterketa burutzeari ekin diogu. Horretarako, lehenik, terminoen osaketaren arabera analisia gauzatu dugu, hau da, terminoa zenbait osagai-kopuruz osatua dagoen aztertzea, terminoen konplexutasun mailaren inguruko balorazio egin ahal izateko, eta bigarrenik euskarazko terminoen aldakiak kontabilizatu ditugu.

Horren ondoren, gure termino-zerrendako terminologia aurretik TZOSen jasota zegoen egiaztatu da Erauzterm termino-erazule erdiautomatikoaren bitartez. Horrek TZOSen agertzen diren termino oro marka batez adierazten ditu eta baita bakoitza zein jakintza alorretan agertzen diren ere adierazten digu. Horri esker, konturatu gara aztertzeke geneuzkan kapituluak industria-marketingaren barruan egon eta azken hau Ekonomia Zientzien alorrean barneraturik egon, bertan agertzen diren hainbat termino beste jakintza alor batzuetan ere agertzen direla (Zientzia Teknologikoak, Fisika Zientzia Juridikoak eta Zuzenbidea...).

Jarraitzeko, Euskaltermeko datu-base terminologiaren hedapena aztertzeke asmotan, zerrendako terminoak eskuz egiaztatu ditugu gure terminoak Euskaltermen jadanik jasota dauden egiaztatzeke.

Amaitzeko, lortu dugun termino-zerrenda osatzen duten terminoak alfabetikoki ordenatu beharrean, industria-marketineko edukiak argi eta zehatz geratzeko, terminoak etiketa ezberdinen bidez sailkatuko ditugu, informazio gehiago eta zehatzagoa lortuz, 2.taulan ikus dezakegun adibidearen moduan. Alde batetik, orokorra, glosarioaren edukia mugatzen laguntzen duten terminoak. Bestetik, industria-merkatuak, hau da, industria-merkatuen ezaugarriak eta industria-bezeroen motibazioak ulertzen laguntzen duten terminoak, eta azkenik, industria-marketineko estrategiak izenez deitu duguna, Industria-marketineko estrategiak definitu eta deskribatzeko beharrezkoak diren terminoak.

2.Taula: Etiketaren arabera sailkatutako termino-zerrendako adibidea

<b>OROKORRAK</b>	<b>INDUSTRIA-MERKATUAK</b>	<b>INDUSTRIA-MARKETINEKO ESTRATEGIAK</b>
Industria-eskari	Erosketa-zentro	Push estrategia
Biltegi	Zeharkako merkatu	Interfuntzionalitatea
Makina-tresna	Eskari eratorri	Harremanen marketin
Industria-marketin	Eginkizun-motibazio	Entrega-berme

## EMAITZAK

Atal honetan, gure iturria izan den, Sektore Espezifikoetako Marketina liburuko bi kapituluetatik, *Merkatuak eta industriako bezeroen jokabidea* eta *Industria-merkatuetako marketinaren ikerketa eta estrategia*, lortu dugun termino-zerrendako termino guztien azterketaren emaitzak aztertu eta interpretatuko ditugu. Alde batetik, gure zerrendako terminoen osaeraren araberrako ezaugarriak aztertu ditugu eta bestetik, gure termino guztiak TZOSen edota Euskalterm datu-basean alde aurretik jasorik zeuden terminoekin konparatu ditugu eta barneratuak dauden termino kantitatearen balorazioa egingo dugu. Behin hau guztia finkatuta, eta daukagun informazio guztia modu argi eta zehatzean kokatu nahi izan dugunez, alor honetako kontzeptuak ulerterrazak izateko, etiketa desberdinen bidez sailkatu ditugu aztertu behar izan ditugun terminoak.

### **1. Osatutako termino-zerrendaren ezaugarrien emaitza**

Garaterm lan-ingurunera igotako nekazaritza-marketinari buruzko testutik eta Erauzterm termino-erauzle erdiautomatikoaren bitartez, 4499 termino-hautagai lortu ditugu. Erauzketa-prozesu hori erdiautomatikoak izanik, balioztatze-lanari ekin diogu, hau da, termino-hautagai horietatik guztietatik landu eta aztertu behar dugun tesian benetan baliozkoak zaizkigun terminoak eskuz balioztatu ditugu. Prozesu hori amaitzean, aztertutako horien guztien artean 164 termino geratu zaizkigu balioetsirik, eta 29 aldaki, guztira, 193 termino direlarik. Bazterturik geratu direnen artean aurki ditzakegu, adibidez, berezko ezaugarri, bezero potentzial, enpresa lehiakide, interes-asmu, konponketa-zerbitzu, kostu-aurrezki... bazterketa hau egiteko beharrezkoa izan zaigu gure tutorea izan den adituaren laguntza, esparru honetan duen ezagutzaz baliatu baikara industria-marketinaren munduarekin erlazio arrazoitu eta zuzenik ez duten terminoak baztertzeke.


Adierazi dugun moduan, termino guztiak berriz aztertu ditugu industria-marketinekoak bakarrik balioko luketenak balioetsiz, errepikatutakoak eta oker daudenak kenduz eta aldakiak sarrera bakarrean lotuz. Hori guztia egin ondoren, 164 terminoz osaturiko termino-zerrenda lortu dugu. Zerrenda mota hartako 29 termino beste terminoen aldakiak dira. Termino guztien konplexutasuna aztertu ahal izateko, termino guztiak osagai kopuruaren arabera sailkatu ditugu. Egin dugun azterketa honetan aldakiak ere kontuan hartu direnez, 193 termino ditugu guztira.

2. Grafikoan ikus dezakegunez, terminoen % 8,29 osagai batez, % 52,33 bi osagaiz, %29,53 hiru osagaiz eta % 9,85 lau osagaiz osaturiko terminoak dira. Kasu honetan, ikus dezakegun moduan indar gehien duten edota osagaien arabera azterturik, esan dezakegu gure zerrendatik termino gehienek bi eta hiru osagai dituztela eta 4 osagaiez osaturikoak, osagai batez osaturikoak baino gehiago direla. Honela, ondorioztatzen da landutako terminoen konplexutasun maila ertain-altukoa dela.

3.taula: Termino-zerrendako terminoen banaketa bakoitzak dituen osagai kopuruaren arabera.

OSAGAI BAT	BI OSAGAI	HIRU OSAGAI	LAU OSAGAI	GUZTIRA
16	101	57	19	193


- 2.Grafikoa: Termino-zerrendaren banaketa terminoen osagai-kopuruaren arabera



## 2. TZOS datu-basearekiko erkaketaren emaitza

Atal honetan, TZOSen aldez aurretik jasota zegoen terminologiarekin egin dugun erkaketa aztertzea dagokigu. Egin dugun lanaren ondorioz lortutako emaitzen arabera, terminoei dagokien zerrendan ditugun 193 terminotik soilik 11 daude TZOSen jasota eta termino guztiak osagai batekoak edota bikoak dira. Modu egokiagoan adieraziz, esan dezakegu termino guztien % 5,70 soilik dagoela TZOSen.

- 3.Grafikoa: TZOSen jasota dauden termino-kopurua ehunekotan



Bestetik, eginiko lana industria-merkatuaren ingurukoa izan eta beraz, Ekonomia Zientzien esparruan kokatzen dugun, beste hainbat alorretan ere agertzen dira gure termino-zerrendako zenbait termino.



4. Taula honetan ikusi dezakegun moduan, sei alor ezberdinetan kokatu daitezke gure termino-zerrendan barneraturik ditugun terminoak.

4.Taula: TZOSen jasotzen diren terminoen alor ezberdinen arabera sailkapena

Zientzia teknologikoak	Zientzia juridikoak eta Zuzenbidea	Osasun Zientziak	Kimika	Ekonomia Zientziak	Fisika
8	3	4	1	6	2


Nahiz eta adierazi berri dugun taula horretan multzo bakoitzean zenbat termino sartzen diren, ez du esan nahi terminoak alor bakar batean soilik erabiliko direnik, termino horiek jakintza-alor batean baino gehiagotan ager baitaitezke. Azaldu berri dugun egoeraren adibide moduan daukagu *kalitate-kontrol* terminoa zein, Osasun Zientzia, Zientzia Teknologiko eta Ekonomia Zientzien multzoan sartzen den; edota *azpikontratatzailer* terminoa, non Zientzia Juridikoak eta Zuzenbidea eta Zientzia Teknologikoen multzoan sartzen den.

### 3. Euskalterm datu-basearekiko erkaketaren emaitza

Terminologia Zerbitzurako Online Sistema (TZOS) kontsulta baliabidea erabiltzeaz gain, landu dugun termino-zerrendako terminoak beste kontsulta-baliabide batzuetan duten presentzia ere aztertu eta miatu dugu. Horretarako Euskalterm datu-base terminologikoa erabili dugu.

Grafikoan ikus dezakegunez, gure termino-zerrendatik, soilik, 193 terminotatik soilik 35 daude Euskalterm datu-basean. Modu egokiagoan adieraziz, eta grafikoan ikusiko dugun moduan, termino guztietatik soilik % 18,13 azaltzen da datu-base terminologiko honetan. Termino guztietatik Euskaltermen aurkitu ahal izan ditugunetatik termino orok hitz bat edo bi ditu gehienez, honek erakusten digularik kontsulta-baliabide honetan azaltzen diren terminoak, soilik, konplexutasun baxukoak direla. Lan honen ondorioz lortu ahal izango dugu konplexutasun maila hori igotzea eta kontsulta-baliabide hauetan azaltzen diren terminoen aberastasuna handitzea.

4.Grafikoa: EUSKALTERMen jasota dauden termino-kopurua ehunekotan



EUSKALTERM. 5. Taula honetan ikusi dezakegun moduan, hamabi alor ezberdinetan kokatu daitezke gure termino-zerrendan barneraturik ditugun terminoak.

5.Taula: Euskaltermen jasotako terminoen alor araberako sailkapena


ADMINISTRAZIO	ARTEA	MEDIKUNTZA	MERKATARITZA	NEKAZARITZA ABELTZAINZTA	EKONOMIA EA ENPRESA
2	2	1	3	1	21
ZUZENBIDEA	INGURUMENA	INFORMAZIO-ZIENTZIA	GIZARTE-ONGIZATE	INFORMATIKA	INDUSTRIA
3	3	1	2	6	9

Adierazitako guztiaz gain, 6. taula honetan ikus dezakegunez, bi kontsulta-baliabideak konparatuz, gure termino-zerrendako termino gehien biltzen dituena Euskalterm da.

6.Taula: TZOSen eta EUSKALTERMen jasota dauden glosategiko terminoak.

TZOS	EUSKALTERM
11	35

5.Grafikoa: Kontsulta-baliabideetan jasota dauden termino-zerrendako terminoen kopurua ehunekotan. TZOS eta Euskaltermen arteko konparaketa.



5. Grafikon ikus daitezkeen datuei erreparatuz gero, begi-bistakoa da bi kontsulta-baliabide horietan jasota dauden termino guztiak osagai batekoak edota bikoak direla, hau da, konplexutasun txikia duten terminoak direla osaerari erreparatuz gero, instalazio, biltegi, globalizazio, esaterako. Beraz, hori horrela izanik ondorioztatu dezakegu, kontsulta-baliabide hauetan barneraturik dauden terminoak konplexutasun gutxikoak direla, eta konplexutasun altuagokoak edo bi hitz baino gehiagoko terminoak ez daudela barneraturik.

#### 4. Termino-zerrendaren sailkapenaren emaitza


Hasieratik adierazi dugun moduan, gure lana edota helburua industria-marketinaren inguruko termino-zerrenda osatu, argi eta zehatz bat lortzea zen. Ondoren, lan guztiarekin amaitzean TZOS kontsulta-baliabidera igoko dugu, etorkizun batean edonork, bai edozein ikaslek edota baita edozein adituk ere, gai honetako terminoei buruzko dudarik izanez gero, kontsulta-baliabide honetan bilatu dezakete beraien dudak argitu ahal izateko.

Azterketa hau guztia egiten egon garen bitartean lanaren eta terminoen zehaztasun mailak duen garrantziaz jabeturik, terminoen esanahi eta erabilera-esparruaren araberako sailkapen bat egitea erabaki dugu. Hiru kategoria ezberdinetan sailkatu ditugularik, 2.taulan ikus daitekeen bezala.

Alde batetik, orokorra, glosarioaren edukia mugatzen laguntzen duten terminoak. Bestetik, industria-merkatuak, hau da, industria-merkatuen ezaugarriak eta industria-bezeroen motibazioak ulertzen laguntzen duten terminoak eta azkenik, industria-marketineko estrategiak izenez deitu duguna, Industria-marketineko estrategiak definitu eta deskribatzeko beharrezkoak diren terminoak.

Termino-zerrenda osotik, 193 terminoetatik, orokorren barnean 64 termino (%33,16) txertatu ditugu, Industria-merkatuen baitan 37 termino (%19,17) eta Industria-marketinaren estrategietan 92 termino (%47,67) esleitu ditugu. Grafikoan ikus daitekeen moduan, zerrenda osotik pisu gehien duten terminoak Industria-marketinaren estrategien barnean txertatu ditugunak dira.

6.Grafikoa: Etikeraren arabera egindako sailkapena ehunekotan



## EZTABAIDA

Lanaren helburu nagusiari jarraituz, ondoren adierazi ditugun industria-marketineko termino errealekin, 193 terminoz osaturiko zerrenda sortu dugu. Termino hauen guztien aberastasun-maila areagotze aldera, hauen aldaki diskurtsibo gehien indentifikatu eta txertatzen saiatu gara, 193 terminoetatik, 29 dira bildutako aldakiak. Termino hauekin batera, gaztelaniazko eta ingelesezko ordainak adierazi dira. Egindako lana, praktikan baliagarria izan dadin, lanaren azken urratsa, gure termino-zerrenda TZOSera igotzea izango litzateke, gainerako aditu eta interesatuentzat erabilgarria izan dadin.

Abiapuntua, Erauzterm termino erauzleak, Sektore Espezifikoetako Marketina liburuko bi kapituluetatik terminoak erauztea izan da, 4.499 termino zehatzagoak izateko. Industria-marketinarekin erlazionaturiko terminoak soilik balioztatu ditugu, gainontzeko guztiak baztertuz. Eginkizun hau unibertsitateko urte hauetan hainbat irakasgaietan landutako eta ikasitako eduki eta jakintzarekin burutu dugu. Hala ere, termino batzuen bazterketan, marketin-arloan aditua den nire tutorearen laguntza ezinbestekoa izan da. Arlo honetan duen jakintza maila altua dela eta, bere gomendio eta jarraibideak jarraitu ditugu terminoen zerrenda erreala lortzeko. Bi termino-hautagai fase burutu ostean, terminologia zehatzagoa lortzeko asmoz, azkenean behin betiko termino-zerrenda eratu dugu, 193 terminoz osatua.

Eratu dugun industria-marketineko termino-zerrendaren azterketari ekiteko, lehenik eta behin, terminoaren konplexutasunean zentratu gara, gure terminoak, osagai-kopuruaren arabera sailkatuz. Landutako datuak aztertuz, ikus dezakegu termino-zerrendaren %8,29 osagai batez, %52,33 bi osagaiz, %29,53 hiru osagaiz eta %9,85 lau osagaiz osaturiko terminoak direla. Hau da, konplexutasun altuko terminoak dira nagusi. Izan ere, Sektore Espezifikoetako marketinaren inguruko liburu bateko terminoez ari gara, non Unibertsitateko koordinatzaile baten publikazioa lanean, terminologia maila nahiko altua galdatzen den.

Hurrengo pausoa, termino-zerrendako terminoak TZOSen zein puntutaraino dauden jasota egiaztatzeari ekin diogu. TZOSen, oraindik ez daude irakasgaietako termino-zerrenda asko kargaturik. Hori dela eta, gure glosategiko 193 termino errealetik, TZOSen soilik 11 agertzen dira, termino guztien %5,70 bakarrik jasotzen dira, eta hauek ez dira bi osagai baino gehiagokoak. Mahai gaineratzen den datu honek argi uzten du oraindik aspektu honetan burutzeko dagoen erroka. Fakultate hauetako adituen eta irakasleen tesietan erabilitako termino-zerrenda TZOSen kargatzea izango litzateke lehenengo egin beharreko eginkizuna, pixkanaka-pixkanaka datu-base terminologiko honetako edukia aberasgarriagoa eta erabilgarriagoa izateko.

Dakigun bezala, Industria-marketina Ekonomia Zientzien alorrean barneraturik dago, baina TZOS datu-base terminologikoan gure terminoak beste 6 alor-markaren arabera jasotzen dira, 11 termino hauetariko batzuk alor bat baino gehiagotan jasotzen direlarik. Zientzia Teknologikoak (8 termino), Zientzia Juridikoak eta Zuzenbidea (3

termino), Osasun Zientziak (4 termino), Kimika Organikoa (1 termino), Ekonomia Zientziak (6 termino) eta Fisika (2 termino).

Ondoren beste iturri datu-base terminologiko baten erkaketa gauzatzeari ekin diogu. Euskalterm izeneko datu-basean, Terminologia Batzordearen bermea duen terminologia ofiziala kontsulta dezakegu eta gure termino-zerrendari dagokionez, 35 termino erreal topatu ditugu. Honek, %18,13 soilik islatzen du eta gutxi hauek osagai bateakoak eta bikoak dira.

Adieraztekoa da osagai bat eta bi osagai baino konplexutasun handiagokoak diren termino errealak ez direla ez TZOSen eta ez Euskaltermen jasota agertzen, eta termino horietariko asko oinarrizkoak eta esanguratsuak direla Industria-marketinaren barnean. Horren adibide moduan hauek ditugu: industriako hornitzaile, industria-zerbitzu, produktu-katalogo, ingeniari-tza-sail, industria-marketineko estrategia, industria-marketineko kudeaketa eta abar.

Arestian aipatu bezala, beraz, etorkizunera begira dagoen erronka handia da. Bi kontsulta-baliabide hauetan jasota dauden termino errealen kopuru minimoa ikusirik, begi bistan geratzen da terminologia anitz eta zabal ororen eskuraezintasuna. Beraz, hiztegiak sortzen dituztenek, aztertutako kontsulta-baliabideak egiten dituztenek, adituek...kontuan hartu beharko zuketena aspektua dela pentsatzen dugu.

Azkenik, lehenago adierazi dugun moduan, gure termino-zerrendako terminoak hiru kategoria ezberdinetan sailkatzea erabaki dugu. Alde batetik, orokorra, glosategiaren edukia mugatzen laguntzen duten terminoak. Adibidez, *biltegi*, *azpikontratatzaila*, *ekipo-ondasun*, *produkzio-sail*, *lehengai*... Bestetik, industria-merkatuak, hau da, industria-merkatuen ezaugarriak eta industria-bezeroen motibazioak ulertzen laguntzen duten terminoak, *eginkizun-motibazio*, *korporazio-merkatu*, *zuzeneko merkatu*, *erosketa-zentro*, esaterako. Eta azkenik, industria-marketineko estrategiak izenez deitu duguna, Industria-marketineko estrategiak definitu eta deskribatzeko beharrezkoak diren terminoak, horien artean aipagarriak, *berrikuntza teknologiko*, *Pull estrategia*, *finantzaketa laguntza*, *robotika*, *MRP moduko hornidura sistema*, *inteligentzia artifizial* eta *lankidetzak-akordio*.

Termino-zerrenda honen sailkapenaren aztertzea egitea egokia litzatekeela pentsatuz, hauei buruzko datu batzuk atera ditugu. Termino-zerrenda osotik, 193 terminoetatik, Orokorren barnean 64 termino (%33,16) txertatu ditugu, Industria-merkatuen baitan 37 termino (%19,17) eta Industria-marketinaren estrategietan 92 termino (%47,67) esleitu ditugu. Grafikoan ikus daitekeen moduan, zerrenda osotik pisu gehien duten terminoak Industria-marketinaren estrategien barnean txertatu ditugunak dira.

## ONDORIOAK

Aztergai izan dugun lanak eskaintzen duen ekarpen praktikoaren inguruan, beharrezkoa iruditzen zaigu aipatzea gure ustez, irakasle euskaldunen arteko komunikazio-sareak sortzea eta dinamizatzeak eragiten duen hobekuntza eta erabilgarritasuna. Izan ere, estrategiak eta baliabideak eskaintzen ditu euskarazko terminologia finkatzen laguntzeko eta testuen kalitate linguistikoa hobetzen laguntzeko. Industria-marketinaren arloko termino-zerrenda eleaniztun hau baliagarria suerta dakioke interesdun orori, hiztegiak nahiz corpusak egiten dituztenei, alor honetako adituei, aztertutako kontsulta-baliabideak egiten dituztenei... terminologia erreala ezagutu eta modu egokian erabiltzeko.

Honetaz gain, arestian aipaturiko ekarpen honen edukia zabaltzeko, TZOSen kontsultagai jartzearekin batera, irakasleen artean ere zabaltzea komenigarria izango litzateke. Horrez gain, Unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen diren irakas-materialetan erabiltzen den terminologia eta fraseologia erreala ere TZOS datu-base terminologikoan kontsultagai jartzea ere garrantzitsua izango litzatekeela iruditzen zaigu. Azken finean, alor honen inguruan edo industriarekin erlazionaturiko lan edo ikerketaren bat gauzatu behar duen ikasle edo adituari terminologiaren inguruko zalantzak eta ezberdintasunak argitzen lagundu diezaikeela iruditzen zaigu.

